


Andres Coindre


Behartsuenen apostolua eta laguna



difusión



Aita Andres Coindre
1787-1826



Anaia Policarpo
1801-1859

Dirección y producción Ignasi Ametlla
Texto: Liana Castello

Traducción en euskera: José Luis Aranburu

Adaptación: P. Antoni Pladevall, Anna Martorell y Hermanos Corazonistas

Ilustraciones: Luis Filella

Maquetación: Núria Coma

Corrección lingüística: Mercedes Tabuyo

© Ignasi Ametlla i Guxens
Difusión Publicaciones y Vídeos
correo@difusionpv.com - Tel. (0034) 619 224 555
www.difusionpv.org

Impresión: Cevagraf, SCCL
Depósito legal: B. 21448-2019
ISBN: 978-84-120821-1-1
Octubre 2019 - *Printed in Spain*


No se permite la reproducción total o parcial de este libro, ni su incorporación en un sistema informático, ni su transmisión en ninguna forma ni por ningún medio, sea electrónico, mecánico, por fotocopia, por grabación u otros métodos, sin el permiso previo y por escrito de los titulares del copyright.

Andres Coindre

Behartsuenen apostolua eta laguna

Testua
Liana Castello

Marrazkiak
Luis Filella



difusión
PUBLICACIONES Y VIDEOS
e-mail: correo@difusionpv.com



HAURTZAROA

Bihotz handi baten jaiotza

1


787ko otsailaren 26an jaio zen Andres Coindre Frantziako Lyon hirian, Rodano ibaiaren erriberan.

Saint-Nizier elizan bataiatu zuten jaio eta handik hamar egunetara.

Maitasunez inguraturiko etxean jaio zen Andres. Pertsona onak eta fede handikoak ziren Vicente eta Maria gurasoak. Hala ere, ez zen erraza gertatzen urte haietan fedea erakustea, Frantzia iraultza jasaten ari baitzen.

Frantziako egoera gogorra zen, behar handia zegoen eta haur gutxik zuten ikasteko aukerarik. Jainkoarenganako fedea ere sekretuan mantendu beharra zegoen.

Andresena bezalako familia sinestunek ezin zuten etxean ez gurutzerik, ez imajinarik, ez erlijio-libururik eduki. Hala ere, ez zen inoiz falta izan Andresen etxean otoitz bat, ia isilean egin behar bazen ere.



Oso garrantzitsua izan zen ama Andresen bokazioan. Berak erakutsi zion Jainkoarenganako eta besteenganako maitasuna. Babestu egin zuen eredu txar eta leku desegokietatik. Amari esker jaso zituen Andresek lehen dotrina-ezagutzak.

Aita jostuna zen; geroago gatzaren salmentan aritu zen familia mantendu ahal izateko. Maria, berriz, maitasun handiz aritzen zen etxeke lanean eta haurren zaintzan.

Anaia zaharrena zen Andres. Marta Maria, Juana Maria eta Vicente anaia-arrebak jaio ziren geroago. Maitasunez eta fedez betetako familia ederra eta eredugarria osatzen zuten.



Bihotz handia zuen Andresek; oso gustuko zuen hitz egitea eta izaera sendokoa zen. Seme ona zen, beti laguntzeko prest zegoen eta gurasoe-kin eta pertsona helduekin errespetu handia agertzen zuen.

Zoriontsu, sendo eta konfiantzaz joan zen handitzen Andres. Ez zuten askok halako zortetik izan.

Zortzi urte bete zituenean, ikasteko unea iritsia zela erabaki zuten gu-rasoek. Andresen etxetik gertu etxean eskolak ematen zituen maisu bat bizi zen.

Eskola eta maisu gutxi zeuden; gutxik zuten ikasteko aukerarik eta An-dresek ez zuen alferrik galdu.



Ikasle saiatua zen eta ikasteko gogo handia erakusten zuen. Beti hiztun eta gogotsu, jakinduriaz eta ezagutzaz betetzen joan zen Andres.

Sekretupean egin behar izan zuten Andresen Lehen Jaunartzea. Apai-
zek ezin zuten sakramenturik askatasunez ospatu.


Badirudi leku ezkutu batean eta apaiz ausarta batek emanda hartu zue-
la Jauna lehendabizikoz Andresek.



Bere hezkuntza ere bide beretik joan zen. Eskola gutxi zegoenez, apaiz batek gidatuta egin zuen lehen hezkuntza Andresek.

Oso mutil alaia zen, bihotz handikoa, eta Jainkoarenganako fede handia erakusten zuen.

Laster ikusi ahal izango dugu gauza harrigarriak lortu izan zituela, batez ere, lagundu zituen pertsona askoren bihotzean bizitzea, hain zuzen ere.



FORMAZIOA

Bokazio baten sorrera

Z

enbait apaiz bizi ziren Andresen etxetik gertu.

Maiz joaten zen bertara Andres gaztea eta haien adiskide egin zen.

Harrituta gelditu ziren apaizak Andresek zuen hitz egiteko erraztasunarekin eta adimenarekin.

Hitz-jardun luzeak egiten zituen apaizekin eta, haren bihotz ona ikusita, apaiz egitea proposatu zioten.

Ez ziren garai errazak, baina Jainkoak isilean mantentzen zituen oraingo bere planak Coindre senar-emazteen seme zaharrentzat.

Bitarte horretan, baimena eskatu zien gurasoei gertuko eliz bateko apaizak Andres mezetan laguntzaile izateko. Maitasun eta ilusio handiz bete zuen zeregin hura Andresek.





Andresen zenbait lagunek ez zioten ulertzen, baina berak garbi zuen egin behar zuena. Dei egin zion Jainkoak eta jarraitu egingo zion.

Ez zegoen zalantzarik: apaiz izan nahi zuen Andresek. Benetan poztu ziren gurasoak; ondo zekiten ez zela bide erraza izango, baina ondo eza-gutzen zuten semea eta laguntza osoa eskaini zioten hasiera-hasieratik.

1804ean, hamazazpi urte zituela, ireki berria zen L'Argentière-ko seminaria joan zen Andres.

Ikasle ona, saiatua eta jainkozalea izan zen. Latina, literatura frantsesa, grekera pixka bat, eta matematika, fisika eta zientziak ere ikasi zituen.



Oso hizlari ona omen zen, —predikari aparta izango zen aurrerago— baita oso saiatua ere eta bihotz handia zuela erakusten zuen.

Bost urte pasa zituen Andresek seminario hartan eta bere bokazioa sendotzen joan zen. Ez zen erraza, baina ondo zekien pena merezi zuela.

1809an, ikasketak amaituta eta hogeita bi urte zituela joan zen San Ireneo Seminario nagusira teologia ikasketak egitera.





Debozio handiz egiten zuen otoitz eta Jainkoaren gero eta lagun handiagoa zela erakutsi zuen.

Ikasle aparta izan zen eta lan ezin hobea egin zuen.

Gurasoengandik urruti zegoenez, haiekin gogoratzen zen askotan, baina gustura egiten zuen sakrifizio hori Jainkoarengatik. Ondo zekiten bai Andresek zein gurasoek Jainkoak dei egiten duenean, begikoenak aukeratzeko dituela eta etxea eta familia uzteak dakarren sakrifizioa ondo asko aseko dituztela zerbitzuak eta bokazioak.